

Gogoaren Baitan

Erabaki nuen, tinko ta fermuki, Ez zitzaidala gertatuko
Maitasun saretan ez nintzela berriz, Uste gabeen eroriko
Bi begi izpitxu, irripar ezti bat, Izan dira nere galtzaile,
Geroztik hor nabil arantzetan dantzan,
Ezinezko amets sortaile.

Zu hor zaude, dantzan, jauzitan,
Zer debru bada pasatzen zait gogoaren baitan .x2

Urrezko txanpon bat eman gogo nuke,
Sorgin bat bilaka banedi,
Ezina egikor aldatzeko aina,
Gezurra bihurtzeko egi.....

Zer den ona edo zer ote den txarra,
Jakin beharko nukelarik
Sumendi gaineen erretzen ari naiz,
Ba al dago irtenbiderik ?

Zu hor zaude, dantzan, jauzitan,
Zer debru bada pasatzen zait gogoaren baitan .x2

Geroak zer dakar, ez dut pentsatu nahi,
Uneak nahi ditut bizi.
Lau egun dira ta bi omen lanotsu,
Galtzera ez ditut nahi utzi

Hitzaren jokoan, itxura eman ez,
Gorde nahiko nuke dena.
Biluzia nauzu izan zarelako,
Egoera hunen sormena.

Zu hor zaude, dantzan, jauzitan,
Zer debru bada pasatzen zait gogoaren baitan .x2